

2017

GIPUZKOARREN KULTURA
POLITIKOA 2017.
TXOSTEN INTERPRETATIBOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA -----	2
1 GIZARTE MODERNO, KONPLEXU ETA INDIBIDUALIZATUA GARA -----	3
2 ...ETA ARDURATSUA ERE BAI -----	5
3 KONFIANTZA-SARE ETA GIZARTE KAPITAL ABERATSEKO LURRALDEA DA GIPUZKOA -----	9
3.1 BESTEENGANAKO KONFIANTZA-----	9
3.2 ELKARTEETAN EDO TALDEETAN PARTE HARTZEA. -----	11
3.2.1 Elkarteetan edo taldeetan parte hartzea, adinaren arabera -----	13
3.2.2 Elkarteetan edo taldeetan parte hartzea, sexuaren arabera-----	13
4 POLITIKAGINTZAREN IKUSPEGIA -----	14
4.1 POLITIKAGINTZAREN ETA POLITIKARIEN PERTZEPZIOA NEGATIBOA DA NAGUSIKI. ---	14
4.1.1 Politikak eragiten dituen bizipenak negatiboak dira, baina gutxi dira indiferenteak. -----	14
4.1.2 Alderdiak eta politikariak hautemateko moduan anibalentzia zantzuak sumatzen dira -----	16
5 DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOIA -----	20
5.1 DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAZ ETA EREDUAZ. -----	20
5.2 ERABAKIEK ZILEGITASUN GEHIAGO DUTE EREDU IREKI ETA PARTE-HARTZAILEEN BIDEZ EGINAK BADIRA, NAHIZ ETA NIK PARTE HARTU EZ. -----	23
5.3 DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOIA ALDATU EGITEN DA ADINAREN ARABERA. -----	25
6 DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOIA ETA EUSKAL ESTATUA -----	27
7 DEMOKRAZIA DIGITALA -----	29

SARRERA

Gizarte modernoetako topiko komuna bilakatu da politika krisian dagoelako ideia. Hainbat inkestak eta ikerlanek erakusten dutenez, herritarrek urrun eta interes eskasarekin bizi dituzte politika gaiak, politikarien irudi negatiboa da gailentzen dena eta, oro har, desafekzioa da politikagintzarekiko herritarrek erakusten duten bizipen nagusia.

Ildo honetan, gure ikerlanaren lehen begiratu batek erakusten duenez, Gipuzkoa ez dago joera orokor horretatik salbu: politikagintzarekiko eta politikariekiko ikuspegi kritikoa hedaturik dago gipuzkoarren artean ere. Baina bigarren begiratu xeheago batek batek erakutsiko digu gure lurraldean irudipen orokor horrek hainbat ñabardura dituela: gizarte modernoek joera nagusi horiek modu doituagoan agertzen dira gurean.

Egungo gizarteetan, herritarren eta politikaren arteko harremana konplexua da eta ertz anitz erakusten ditu. Hortaz, Gipuzkoako kultura politikoaren aztergaiak irakurketa arinetatik ihes egitea eta begiratu zorrotzagoekin aritzea eskatzen du. Ildo horretan, 2009an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz landu genuen *Gipuzkoako Gazteak eta Politika* ikerlanean, joera berrien hainbat arrasto aurkitu genituen.

Ikerketa hartan, eragin-indar desberdinez bazen ere, gizarte modernootan nagusi den indibidualizaziorako joera gazteen politika-ikuspegietan nola nabarmentzen zen aztertzen genuen. Laburbilduz, ohartu ginen: (1) Gazteen bizi-xedeen formulazioan dimentsio pertsonal-pribatuek gaina hartzen ziotela dimentsio sozial edo kolektiboek eta, hortaz, lehentasunak bizi-proiektu pertsonalaren garapenean kokatzen zituztela nagusiki gazteek, inplikazio soziala edo politikoa adierazten zuten dimentsioen aldean. (2) Beste garai batzuetan nagusi ziren narrazio sozialekin alderatuz, erreferentzia ideologiko horien euskarririk gabea zela gazte indibidualizatuen gizarte-begirada. (3) Indibidualizazioa prozesu konplexua zela eta ezin zela indibidualismo hutsarekin nahasi. Eta (4) pasotismo politikoa ez ezik, politikara hurbiltzeko molde indibidualizatu batek ezaugarrituriko kultur politiko berri baten ernamuinak ere topa zitezkeela gazteek adierazten zituzten ikuspegietan.

Aurkezten dugun ikerlan honetan ere, 2009an topatu genituen harien antzekoak aurkitzen ditugu. Baina Gipuzkoako biztanleen argazki berri honetan, ñabardurak azaleratzen dira batetik, eta bilakaera esanguratsua bestetik .


Hurrengo lerroetan, Gipuzkoarron Kultura Politikoaren berri ematen diguten adierazle nagusien azalpena aurkezten dugu.

1 GIZARTE MODERNO, KONPLEXU ETA INDIVIDUALIZATUA GARA

Aipagai dugun indibidualizazio prozesua ez da azken urteotako kontua. 80ko hamarkadatik ari dira hainbat pentsalari eta ikertzaile auzi honek gizarte modernoaren bilakaeran duen eraginaz ohartzen. Ulrich Bech soziologo entzutetsuaren arabera, adibidez, *"la ética de la autorrealización y logro individual es la corriente más poderosa de la sociedad occidental moderna. Elegir, decidir y configurar individuos que aspiran a ser autores de su vida, creadores de su identidad, son las características centrales de nuestra era"*. Prozesu konplexua da hau, arestian esan dugunez, indibidualismo hutsarekin nahasi ezin dena. Soziologiako literaturan, adibidez, bi analisi-ildo topatzen ditugu:


- Alde batetik, diskurtso batek nabarmentzen du jendarte osaera berrian norbanakoaren autonomia handiagoari eta autobaieztapenari lotuta doazen balioen azaleratzea. Egile batzuen arabera, jendarte postmoderno hauetan, garrantzia hartzen dute bizitza kalitateari, garapen pertsonalari eta norbanakoaren errealizazioari lotutako balioek. Norbanakoak bere interesen kontzientzia handiagoa du, errekonozimendu pertsonala indar handiagoz bilatzen du eta bere iritziaz mesfidatiagoa da, kritikoagoa ere bai, eta lelo orokorrekin konbentzitzen zailagoa da.
- Bestalde, kezka ere aurkitzen dugu. Kezka gizarte sareak desegiten ari direlako eta norbanakoaren eta jendartearen arteko loturak ahultzen. Ziurgabetasun iraunkorraren aurrean, eta balio kontsumistak eta indibidualistak zabaltzearen ondorioz, elkartasunari eta konpromisoari eusten dieten baldintza sozialak desegiten ari direla adierazte da. Testuinguru horretan, zalantzan jartzen da proiektu sozial kolektiboen bideragarritasuna.

Prozesu orokor horren eragina ikusi dezakegu gurean ere. 2017ko ikerlanak erakusten duenez, gipuzkoarren balioez eta norberaren bizitzan garrantzitsuak diren gaiez galdetuta, dimentsio pertsonala adierazten duten esaldiak nabarmentzen dira dimentsio soziala adierazten dutenen gainetik.

HAINBAT GAIREN GARRANTZIA NORBERAREN BIZITZAN (1-10 ARTEKO BATEZ BESTEKOA). SINTESIA


Osasuntsu egotea eta Familia-harreman onak edukitzea nabarmentzen dira guztien artean; ondoren, Ingurumena zaintzea salbu, dimentsio pertsonalarekin lotzen diren esaldi multzoa agertzen da, eta gero, koxka bat beherago, dimentsio sozialarekin lotzen diren Auzoa edo komunitatea, eta Munduko beste lekuetan gertatzen denarekin kezkatzea. Politika eta erlijio dimentsioak dira, nabarmen, garrantzi gutxien bereganatzen duten dimentsioak.

Joera horren eragina gipuzkoarrek lanaren gainean duten ikuspegiaren bilakaeran ere ikusi dezakegu. Lanaren ikuspegi materialistak adierazten dituzten aukerak (Bizimodua duintasunez ateratzeko edo dirua irabazteko; edo sozialki gora egiteko modua) orekan agertzen dira lanaren balio postmaterialistekin lotuta dauden aukerekin (autoerrealizazioa, bokazioa edo gizarte bokazioa).

LANAREN DEFINIZIOA. SINTESIA (BI AUKEREN BATEZ BESTEKOA)

2 ...ETA ARDURATSUA ERE BAI

2009an egin genuen *Gazteak eta Politika* ikerlanean, gizarte-kezka eta inplikazio sozialerako jarrerak ardatz hartuta, hiru jarrera edo posizio identifikatu genituen gazteen artean, eta horrela ezaugarritu genituen:



- **Bizi estilo indibidualizatu hutsa:** Gazte hauek urrun bizi dituzte gizarte- eta politika-kezken eremua, *'bakoitza bere rollora'* dirudi gazte hauen aldarrikapen nagusia. Besteekiko betebeharraren eta arduraren zama etikoa lausoturik agertzen da gazte hauen diskurtsoetan. Kezkak, batez ere, norberari edo ingurune hurbileko norbaiti zuzenki eragiten dionean azaltzen dira. Gazte hauen ikuspegian, erosotasunez eta oparotasun materialez hornituta dagoen gizartean zer aldatu gutxi dago. Gainera, ez dute sinesten gizartean eragiteko gaitasunean, gauzak diren bezalakoak dira eta ez dago zertan ibili gauza horietan denbora galtzen. Eta, bestela ere, norberak bere bizi-proiektuarekin nahiko lan baduenez, boteredunei dagozkie gizarte eta politika kontuak.

Indibidualizatu hutsaren begiradan mundu guztia norbere interesen arabera mugitzen da. Gizartea horrela ikusten duenarentzat, norberaren interesak dira ardatz, eta hobe du gutako bakoitzak, lehenik eta behin, norberaren egoeraz arduratu. Gutako bakoitza norbere interesen atzetik dabilen gizarte-irudipenak baieztapen indibidualista gogorrek konplexurik gabe adierazteko bidea ematen die. Eta gizarte-bokazioa adierazten dutenenganako mesfidantza eta parte hartzen duten gazteei buruzko irudi eskasa ere adierazi ohi dute.

- **Bizi estilo indibidualizatu arduratsua:** Besteek ez bezala, gizarte-kezka eta ardura handiagoa erakusten dute gazte hauek. Gizarte- eta politika-gaien aurrean jarrera aktiboa dute, informatu, iritzia izan eta gai horiek lagunartean hizpide izaten dituzte. Hala ere, gizarte-gaien ardurak ez du, inola ere, diskurtso jaso edo landurik, eta are gutxiago hartzen du horien bizimoduaren zati handirik. Gizarte-gaiekiko nolabaiteko ardura bai, baina lehentasunak argi dituzte: irudikatzen duten ongizate pertsonalaren oinarriak bermatzea.


Gizarte-ardura erakutsi bai, baina parte hartu ez. Ardura eta konpromiso iraunkorretatik ihesi dabilta eta gizarte parte-hartzea begi onez ikusten badute ere, besteen kontua delako ustea sendo agertzen da horien baitan. Gazte hauek erosotasuna, norbere gauzak, norbere denbora balioesten dute gehien, parte-hartze dinamiken gainetik. Gizartea eraldatzeko grina apaldurik, norberaren interesen ikuspegitik neurtzen dira gizarte-dinamikak: beharrian indibidualetatik, edo hurbileko kezka-iturri zehatzetatik abiatuak abiatzen dira kezka sozialen eremura. Mobilizazioetan parte hartzeko aukera ez da baztertzen, baina horretan ere, logika eta ikuspegi indibidualizatuak agintzen du: oso hurbileko gaia denean, norberaren beharrianekin eta interesekin lotura hertsia duenean eta besteen esku uzteko aukera garbi ikusten ez denean, orduan, nolabaiteko inplikaziorako baldintzak badirela dirudi.

- **Gizarte-bokazioa duen bizi estiloa:** Gizarte-bokazio handia erakusten du Gipuzkoako beste gazte sektore batek, hainbatetan, bizi-estiloa gizartearekiko konpromisoaren ildoan egituratzeraino ere bai: lan edo ikasketetatik kanpoko norberaren denbora zeregin horietara bideratuz; kezka-iturri bide emateko modua eskaintzen dieten erakundeetan arituz edo lan eginez; edo kezka sozialak, pertsonalak eta lanekoak uztartzen dituen lan-proiektu autonomoak sortuz eta bultzatuz.

Gizarte-bokazioa adierazten duten gazte horiek bitan banatu ahal ditugu politikarekiko duten jarreraren arabera: horietako batzuek gizarte-gaietan jarduten dute, baina politikaren eremua arrotz egiten zaie. Beste batzuentzat, berriz, politikak toki garrantzitsua du euren bizitzan, lehentasunezko tokia ere bai zenbaitetan.


Ikerketa kuantitatiboak *indibidualizatu arduratsuak* taldearen garrantziaz ohartarazi zigun. 2009ko ikerketa kuantitatiboak erakusten zuenez, norberaren lehentasunak zehazteko unean, dimentsio eta balio pertsonalek dimentsio sozialagoek baino garrantzi handiagoa baldin bazuten ere, gizarte eredia irudikatzeko unean gizarte parte-hartzaileagoa islatzen duten baieztapenek adostasun handiagoak zituzten baieztapen indibidualistek baino.

Behoko taulan ageri denez, 2017ko ikerketan Gipuzkoako biztanleek antzeko joera erakusten dute. Horrela, inplikazio sozial eta politikoari buruzko iritziak kontuan hartuta, 2017ko inkestan, gizarte edo politika arloko parte-hartzea islatzen duten esaldiek adostasun gehiago lortu dute jarrera indibidualistak adierazten dituztenek baino. Honela, 'Jendeak modu aktiboan parte hartu behar dugu eragiten digun horretan', 'Politikak eragin handia du edozein herritarren bizitzan' eta 'Komunitateko kide naizen neurrian maiz samar sentitzen dut interesa parte hartzeko edo lan egiteko beharra gurea den horren alde' esaldiek onarpen handia izan dute erantzunetan (7,6ko, 7,1eko eta 6,8ko batez bestekoa, hurrenez hurren). Aldiz, ikuspegi indibidualistak islatzen dituzten esaldiek adostasun gutxiago bildu dute: 'Mundu guztia bere interesen alde ari da, beraz, hobe da berdin egitea' esaldiak 4,1eko batez bestekoa atera du; 'Ez zait gustatzen inork jakin dezan zein diren nire ideia politikoak' esaldiak 4,5eko batez bestekoa eta 'Ez dut sentitzen inolako beharrik edo obligaziorik dinamika sozial eta politikoetan inplikatzeko' esaldiak 4,8ko batez bestekoa.

INPLIKAZIO SOZIAL ETA POLITIKOARI BURUZKO IRITZIAK (1-10 ADOSTASUN MAILAREN BATEZ BESTEKOA). SINTESIA

2009ko *Gazteak eta Politika* ikerlanean galdera berdina erabili genuenez, emaitzak alderatzeko aukera dugu. 2009an ere, gazteekin egindako ikerketan, gizarte edo politika arloko parte-hartzea islatzen duten esaldiek adostasun gehiago eskuratu zuten esaldi indibidualistak baino. Baina azpiko taulari jarraituz, bi ñabardura aintzat hartzekoak dira:

- 1.- Bi aldeetako joerak (parte-hartzaileagoak batzuk, indibidualistagoak besteak) parekoago zeuden gazteen artean 2009an. hau da, joera ezberdinak adierazten zituzten esaldien arteko aldeak txikiagoak ziren.
- 2.- 2009ko gazte horien iritzia oraingo gipuzkoar guztien iritziekin erkatuta, parte-hartzearen aldeko joera handiagoa da orain gipuzkoar guztiek agertu duten iritzian agertu (eta ondorioz, joera indibidualista txikiagoa).

**INPLIKAZIO SOZIAL ETA POLITIKOARI BURUZKO IRITZIAK (1-10 ADOSTASUN MAILAREN BATEZ BESTEKOA).
GAZTEAK ETA POLITIKA 2009 ETA GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017**

Subjektu indibidualizatu arduratsuaren logika topatzen dugu gure aurrez aurre: gizarte parte-hartzaileagoa nahiago du, nahiz eta hori lortzeko inplikazio eta konpromiso sendorik garatzeko gogorik ez duen adierazten bere lehentasunak bizi-egitasmo pertsonalaren garapenean sendo kokaturik dituen herritar moderno indibidualizatuak.


3 KONFIANTZA-SARE ETA GIZARTE KAPITAL ABERATSEKO LURRALDEA DA GIPUZKOA

Kapital sozialaren inguruan ikuspegi eta definizio ezberdinak daude. Horietan katramilatu gabe, honako bi ezaugarri hauek beharrezkotzat jotzen dituzte gehienek partekatzen dituzten bi : komunitateko partaideen artean konfiantza izatea eta eskura dituzten elkartasun baliabideen sare formal zein informalak sendoak izatea . Inkesta honen emaitzek erakutsi dute Gipuzkoa, bietan ere, kapital sozial handikoa dela . Eta hori garrantzitsua da kultura politikoari dagokionez.

3.1 BESTEENGANAKO KONFIANTZA

Batetik, besteenganako konfiantza. Gipuzkoarren erdiak pasatxok pertsona gehienengan konfiantza izan daitekeela uste du (%53,5).

**OROKORREAN, PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKEELA USTE DUZU ALA
BESTEEKIKO HARREMANETAN INOIZ EZ GARELA BEHAR BEZAIN ZUHURRAK IZATEN?**




Datu hau koherentea da beste iturri batzuetan ikus daitezkeenekin. Horrela, 2017ko martxoan, Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen kabineteak argitaratu zuenez (*Bizi kalitatea herri eta hirietan*), 0tik 10erako eskalan, Gipuzkoak 6,4ko batez bestekoa zuen konfiantza mailan, Arabak eta Bizkaiak baino 4 hamarreko gehiago (6,0ko batez bestekoa biek). Hiru herrialdeak batera kontuan hartuz gero, batez besteko hori 6,1ekoa zen.

Aldagai berdina beste herrialde batzuekin alderatzen baldin badugu, Europako Inkesta Soziala (2014) edo Balioen Munduko Inkestaren datuak baliatuz (2010-2014ko epea), besteekiko konfiantzari dagokionez, Gipuzkoa goi mailan dagoela ikus daiteke.

OROKORREAN, PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKE 7-10 PUNTUAZIOEN %, ESS7 2014, MOST PEOPLE CAN BE TRUSTED % WVS 2010-2014; ETA PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKE %, GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017.

	ESS7 2014 7-10 %	WVS 2010-2014 (Most people can be trusted %)
Danimarka	66,0	
Finlandia	64,8	
Norvegia	59,7	
Suedia	53,0	60,1
Herbehereak	49,0	66,1
GIPUZKOA ¹		53,5
Suitza	41,2	
Estonia	35,8	39,0
Irlanda	35,0	
Erresuma Batua	34,8	
Austria	30,9	
Israel	28,9	
Alemania	28,3	44,6
Lituania	27,8	
Belgika	27,4	
Espainia	24,7	19,0
Txekia	22,1	
Frantzia	19,9	
Hungaria	18,2	
Eslovenia	17,6	19,9
Polonia	16,4	22,2
Portugal	12,9	

OROKORREAN, PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKE 7-10 PUNTUAZIOEN %, ESS7 2014; ETA PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKE %, GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017.




¹Gure inkestan itema Balioen Munduko Inkestaren formulazio berdinarekin egin da. Europako herrialdeekin alderatzeko, Europako Inkesta Soziala hartu dugu erreferentziatzat, baina hor 0-10 eskalan neurtzen da konfiantza hori. Europako Inkesta Sozialean 7 eta 10 puntuazioa eman dutenen batura Balioen Munduko Inkestako datua baino zertxobait baxuagoak da, Espainiarentzat izan ezik. Hori kontuan hartuta, Gipuzkoa, gutxi gorabehera, Herbehereak eta Suitza artean kokatu dugu.

3.2 ELKARTEETAN EDO TALDEETAN PARTE HARTZEA.


Jendearen inplikazioari edo elkartegintzari dagokionez ere, Gipuzkoako datua altua da. Gipuzkoako herritarren erdia baino gehiago (%55,1) elkarteren bateko kide da eta horietatik gehienek (%37,9), kide izateaz gain, borondatezko lana egiten ere parte hartzen dute. Azpimarratzekoa da, era berean, egun inongo elkartetako kide ez diren arren, badagoela beste %17,6 iraganean izan direnak. Beraz, elkarte bateko kide inoiz izan ez direnak edo borondatezko lanik inon egin ez dutenak %27,2ra murrizten dira.

PARTE HARTZEA ELKARTE EZBERDINETAN. KIDE IZAN ETA PARTE HARTZEN DUTE. SINTESIA




Gainera, elkarteren baten parte hartzen dutenen artean, %46,9k elkarte batean baino gehiagotan parte hartzen du.


PARTE HARTZEN DUTENAK, ZENBAT ELKARTETAN PARTE HARTZEN DUTEN



Datu horiek bat datoz 2015ean Lehendakaritzako Prospekzio Gabineteak egindako *Kultura Demokratikoaz* ikerlanarekin (58. Soziometroa). Hor ere, elkarte bateko kide parte-hartzaileak %37 ziren gipuzkoarren artean, Bizkaian puntu bat apalagoa zen ehunekoa (%36) eta Araban %42raino igotzen zen.

TALDE ETA ELKARTEETAKO KIDE IZATEA (EUSKAL SOZIOMETROA 58, PSK 2015).

Europara begira jartzen bagara, Gipuzkoa oso goian agertzen da horretan ere²: Finlandiaren atzetik eta Suediaren parean. Atzetik ditu beste guztiak.

PARTE HARTZEN DU AZKEN 12 HILABETEETAN ELKARTEREN BATEAN % ESS7 2014 ETA KIDE ZARA ETA PARTE HARTZEN DUZU % GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017


Beraz, hasieran aipatu bezala, kapital sozialaren adierazle gisa soilik bi aldagai hauek kontuan hartuta, Gipuzkoa kapital sozial handiko lurraldea da.

² Inkesta batean eta bestean galdetzeko modua ezberdina izan bada ere (ESSan azken 12 hilabeteengatik galdetzen dute). Uste dugu aldeak ez direla Gipuzkoaren irudia asko aldatzeko modukoak izango.

3.2.1 Elkarteetan edo taldeetan parte hartzea, adinaren arabera

Gipuzkoako datua adinka aztertuta, ohartzen gara adin guztietako jendeak ez dutela berdin parte hartzen elkarteetan. Batetik, inoiz elkarte bateko kide izan ez direnen artean, gazteenak eta, bereziki, adin handikoak ageri dira oso nabarmenduta. Hau da, dagokien baino leku handiagoa dute profil honetan. Egun kide aktibo direnen artean ere, gazteek hartzen duten lekua handiagoa da berez dagokiena baino, tarteko adinetan dauden gipuzkoarrekin batera. Beraz, gazteen artean, adin handikoen artean ez bezala, bi joerak antzematen dira, batere parte hartzen ez dutenena eta aktibo direnena.


TALDE ETA ELKARTEETAKO IZATEA, ADINAREN ARABERA. GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017.



3.2.2 Elkarteetan edo taldeetan parte hartzea, sexuaren arabera

Sexuari dagokionez, kide aktibo direnen artean emakumeen eta gizonen presentzia oso orekatua da ehunekoetan (ia %50era iristen dira biak), baina berez, emakumeek jendartean osatzen duten proportzioa kontuan hartuta, dagokien baino leku txikiagoa hartzen dute.

TALDE ETA ELKARTEETAKO IZATEA, SEXUAREN ARABERA. GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017.



4 POLITIKAGINTZAREN IKUSPEGIA

Gipuzkoako kultura politikoa ezagutzeko egin dugun lehen hurbilpenak argazki nagusi bat erakusten digu: Mendebaldeko gizarte modernoetako indibidualizazioaren korranteak Gipuzkoan bere aztarnak utzi ditu, hainbat kultura-ikuspegi sendo eraldatzeraino. Baina ez dirudi gizarte-ehunduraren oinarriaren kaltetan gertatzen denik. Aitzitik, konfiantza-sare osasuntsuz eta kapital sozial aberatsez ondo hornitutako lurraldea da Gipuzkoa oraindik ere.


Baina zer gertatzen da politikaren dimentsioa aztertzen badugu? Agertzen al da berezitasunik gipuzkoarren hautematean? Lehen begiratuan, Gipuzkoako biztanleen iritzia ez du zalantzarako tarte askorik uzten: politikagintzak, oro har, eta politikariak zehazki, fama txarra dute gurean. Baina begiratu xehatuago batek ñabardura garrantzitsuak izan badirela adieraziko digu ere.

4.1 POLITIKAGINTZAREN ETA POLITIKARIEN PERTZEPZIOA NEGATIBOA DA NAGUSIKI.

4.1.1 Politikak eragiten dituen bizipenak negatiboak dira, baina gutxi dira indiferenteak.


Politikak herritarrei zer-nolako sentimenduak eragiten dizkien galdetuta, nabarmena da sentimendu txarrek hartzen dutela gaina. Haserrea (elkarrizketatuen %50,8 aipatu du), mesfidantza (%46,1) eta asperdura (%33,2) izan dira gehien aipatu dituzten sentimenduak. Aitzitik, politikarekiko sentimendu onak aipatu dituztenak dezente gutxiago izan dira: %28,7k interesa aipatu du, %10,4k konpromisoa eta %34,6k entusiasmoa. Dena den, ezaxola edo indiferentzia agertzen dutenak %15,0 dira guztira. Hau da, sentimendu negatiboak bai, baina gipuzkoarrak politika "bizi" du.

POLITIKAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK (BI AUKEREN BATURA). SINTESIA




Gainera, kontuan hartzen badugu, indiferentzia erantzun dutenen artean, gehienek sentimendu nahasiak dituztela, aurreko baieztapena indartu egiten da. Guztiz indiferenteak direnak %1,9 dira, eta indiferentziaz gain mesfidantza edo asperdura sentitzen dutenek %3,77; guztira, beraz, %11,6k osatuko luke politikaren aurrean multzorik hotzena.

INDEFERENTZIA ETA BESTE ZERBAIT SENTITZEN DUTENAK.



2009an gazteekin egindako ikerlanean, ezaxola sentitzen zutenak %22,5 ziren eta asperdura zen sentimendu nagusia (%39,3). 2017ko ikerketan, 16-29 urte artekoen artean, hori ere ezberdin ageri da. Haserrea eta bereziki mesfidantza handitu dira, eta azken hori da egun sentimendu nagusia. Aldiz, asperdura eta ezaxola txikitu egin dira.

GAZTEEN ARTEAN POLITIKAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK (BI AUKEREN BATURA). 2009-2017




4.1.2 Alderdiak eta politikariak hautemateko moduan anibalentzia zantzuak sumatzen dira

Politikaren aktore nagusiak alderdiak eta politikariak dira. Horregatik, alderdien eta politikarien irudiaz ere galdetu dugu.


Alderdien inguruan, ikuspegi orokorra haien aldekoa dela esan daiteke, haien funtzioei eta ezaugarriei buruzko iritzia galdetu dugunean. Beharrezko jotzen dituzte, kritikak edo itzalak ere ikusten diren arren. Horrela, adostasun gehien bildu duen esaldia hauxe izan da: "Alderdiak beharrezkoak dira talde eta klase sozialen interesak defendatzeko" (%74,9); Adostasun gutxien, berriz, esaldi honetan agertu dute herritarrek: "Alderdi politikoek ez dute ezertarako balio" (%18,3). Beraz, gipuzkoarren ustez, alderdi politikoak baliagarriak dira. Hala ere, askok uste du (%70,3) alderdi politikoak botere ekonomikoen esku daudela, eta erdiak baino gehiagok (%55,1) iritzi honekin bat egin du: "Alderdi politikoek elkar asko kritikatzten dute, baina benetan guztiak berdinak dira". Azkenik, alderdi politikoak garrantzitsutzat hartzen diren arren, demokraziarentzat ezinbestekoak direla uste dutenen proportzioa %56,4koa da.

ALDERDIEN IRUDIAREN INGURUKO IRITZIAK. ("GHEIENBAT ADOS" ERANTZUN DUTENEN %). SINTESIA.




Alderdien irudiaz ez ezik, politikarien irudiaz ere galdetu dugu. Herritar gehien-gehien erantzunetan, politikarien irudi txarra nagusitzen da. Batez bestekoak ikusita, "eskas" bateko puntuazioa (3aren ingurukoa 0-10eko eskalan) lortzen dute politikariek Gipuzkoako herritarren begietara, aipatu zaizkien ezaugarri guzti-guztietan. Ehunekoei erreparatu, %66,9k dio politikariek interes propio edo alderdikoiei begiratzen dietela gizartearen interes orokorre bano gehiago, %66,0k dio gezurtiak direla politikari gehienak eta %63,8k ustelak direla. Azkenik, %63,8k herritarrengandik urrun ikusten ditu politikariak eta %58,3k uste du ez direla oso langileak.

POLITIKARIEN IRUDIA. (0 EZAUGARRI NEGATIBOA-10 EZAUGARRI POSITIBOA. BATEZ BESTEKOA). SINTESIA




Erakundeek sustatu dituzten parte-hartze prozesuetan politikarien presentziaren eraginaz ere galdetu diegu, eta gehiago dira oztopatu egiten dutela uste dutenak (%41,4) lagundu egiten dutela uste dutenak baino (%13,1). Beste zenbaiti, berriz, iruditzen zaio (%21,1 dira) haien presentziak ez duela ez oztopatzen eta ez laguntzen parte-hartze prozesuetan. Hau da, herritarren herena da pentsatzen duena ez dutela trabarik egiten.

ERAKUNDEEK SUSTATUTAKO PARTE-HARTZE PROZESUETAN POLITIKARIEN PRESENTZIAK JENDEAREN PARTE-HARTZEA LAGUNDU EDO OZTOPATU EGITEN DUELA USTE DUZU?



Beraz, politikarien irudi negatiboa gailentzen da orokorrean. Baina, zehatzago galdetzen dugunean, ia guztiek salbuespenak aurkitzen dituzte, hau da, gehiengo handi batek uste du badirela salbuespenak (%82,7).


POLITIKARI GUZTIAK BERDINAK DIRA EDO BADIRA SALBUESPENAK ERE?




Beraz, Gipuzkoan, politikaren eta alderdi eta politikarien irudi orokorra ez da batere ona, baina, dena den, baditu gizartean euskarritzeko oinarri garrantzitsuak ere.

Begirada altxatu eta Europara begira jarrita, Gipuzkoako egoera positiboagoa dela ikusten da. Alderdienganako konfiantzan zentratzen bagara, orokorrean Europan ez dago konfiantzarik haiengan. Azken 16 urteetako seriea hartuta, joera orokorra da, nahiz eta krisi ekonomikoarekin bat konfiantza falta areagotu egin zen eta azken neurketetan apur bat lausotu. Konfiantza falta dutenen proportzioa ez da %70etik jaitsi serie guztian.

KONFIANTZA ALDERDI POLITIKOETAN %. 2001-2017KO MAIATZA. EUROBAROMETROA.



Europako datu orokorra hori izanik ere, aldeak handiak dira estatu batetik bestera. Azken neurketan, 2017ko maiatzean, Luxenburgo izan da estatu bakarra non konfiantza dutenak ez dutenak baino gehiago diren. Horretaz gain, konfiantzarik ez dutenen proportzioa %60koa duten estatuak bost besterik ez dira (Luxenburgoz gain, Malta, Herbehereak, Alemania eta Finlandia). Beste muturrean, herritarren %85en konfiantzarik biltzen ez dutenen artean, 9 estatu ageri dira: Frantzia (%85), Lituania (%86), Letonia (%87), Txekia (%88), Kroazia (%88), Eslovenia (%88), Zipre (%89), Espainia (%90) eta Grezia (%95).

NAGUSIKI EZ DUTE KONFIANTZARIK %. ALDERDI POLITIKOAK. 2017KO MAIATZA. EUROBAROMETROA.

5 DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOA


Orain arte ikusi dugu eremu politikoak badituela krisi-zantzu edo ahuldade nabarmen batzuk (politikarekiko sentimendu negatiboak, alderdi eta politikariekiko bizipen anibalenteak...), baina, hala ere, Gipuzkoan badagoela kapital sozial nahikorik horri aurre egiteko (elkartegintza handia eta eremu sozial eta politikoarekiko kezka). Ikerlan honetan horri buelta ematen hasteko antzeman dugun gako posibleetako bat demokrazia-eredu irekiagoetan eta parte-hartzaileetan sakontzeko gogoia izan daiteke. Nolabait laburtuz, hainbat erantzunetan jaso dugu oro har demokrazian eta demokrazia zuzenean sakontzeko gogoia. Ez da eredu asanbleario bat aldarrikatzen dena, ezta eredu ordezkatzailearekiko kritika erradikal bat ere. Izan ere, egungo eredu demokratikoak babes zabala jasotzen du, baina badago eskaera bat herritarraren parte-hartze zuzenago baterako, edo gutxienean, horren aukerak zabaltzeko. Badirudi, gipuzkoarren begietara, parte hartzeko aukera egoteak berak legitimitate gehiago emango liekeela erabakiei, nahiz eta pertsona gehiagok ez parte hartu erabakitze horretan.

5.1 DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAZ ETA EREDUAZ.

Demokraziaren funtzionamenduarekin zenbaterainoko poztasuna duten galdetu diegu gipuzkoarrei; zenbaterainokoa Euskadikoaren eta zenbatekoa Espainiakoarekin. Oro har, Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekin poztasun nabarmen handiagoa dago Espainian duen funtzionamenduarekin baino. Euskadikoarekin, erdia baino gehiago oso edo nahiko pozik dago (%5,4 eta %55,2 hurrenez hurren). Kontrako aldean, gutxiago badira ere, ez dira gutxi "ez oso pozik" daudenak (%25,9). Batere pozik ez daudenek %6,0 osatzen dute.

Espainiako demokraziaren funtzionamenduarekin, ordea, gehiengoa ez dago pozik. Guztira, hamarretik zazpi dira kritiko Espainiako demokraziarekin (%36,3 "ez oso pozik" eta %33,7 "batere pozik ez").


POZTASUN MAILA DEMOKRAZIAK EUSKADIN/ESPAINIAN DUEN FUNTZIONAMENDUAREKIN



Erreferentziatzat hartuta Euskadin eta Espainian demokraziak duen funtzionamendurekin oso pozik edo pozik dauden gipuzkoarren proportzioak (%60,7 eta %20,7 hurrenez hurren), Europan gertatzen denarekin alderatzera goaz orain.


1993tik, Europan demokraziak duen funtzionamendurekin pozik zeudenen proportziorik txikiena %35,3koa izan zen (1997an) eta handiena %51,7koa (2007an). Egun %46,9koa da proportzio hori.

POZTASUN MAILA DEMOKRAZIAK EUROPAN DUEN FUNTZIONAMENDUREKIN. 2017KO MAIATZA. EUROBAROMETROA



Estatuz Estatu gauza dezente aldatzen da ordea. Luxenburgon, esaterako %67k agertu du poztasuna Europako demokraziarekin, eta Frantzian %43k. Eta are alde handiagoak daude norberak bere estatuko demokraziarekin duen poztasunaren portzentajeetan. Orokorrean Europa iparraldeko estatuetan dago poztasun handiena (Finlandian, Herbehereetan, Luxenburgon eta Danimarkan %80tik gorakoa). Behetik, Greziako herritarrek ageri dute, tarte nabarmenarekin, poztasun gutxien (%18). Ondoren datoz Kroazia, Bulgaria, Errumania, Eslovenia, Lituania, Espainia, Italia, Eslovakia eta Hungaria, denak %30-40 artean.

OSO EDO NAHIKO POZIK DEMOKRAZIAK EUROPAN/ZURE HERRIALDEAN DUEN FUNTZIONAMENDUAREKIN. 2017KO MAIATZA. EUROBAROMETROA




Beraz, Gipuzkoara bueltatuta, Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekin dagoen poztasuna (%60,7) ertaina-handia dela esan daiteke. Aldiz, Espainian duenarekin (%20,7) oso apala. Hain kopuru txikia soilik Grezian aurkitu dugu.

Egungo demokrazia-ereduaz galdetu dugunean, %55,9k nahiago luke eredu parte-hartzaileago bat, non herritar xumeek aukera izango duten erabaki publikoetan modu zuzenagoan parte hartzeko. Laurdenak baino gehiagok (%28,3) uste du egungo eredu egokia dela. baina herritarren parte-hartzeaz gehiago ere galdetu dugu: zehazki, herritarren parte-hartzea egituratzeko moduez galdetu diegu gipuzkoarrei, eta jasotako erantzunak antzeko norabidean doaz demokrazia ereduaz galdetzean jaso diren erantzunekin. Horrela, multzo nagusiak (%42,8) uste du politikariek herritarren parte-hartzea eta erabakitzeko ahalmena sustatu behar dutela. Ia laurdenak (%24,6) uste du ondo dagoela politikariek herritarren iritzia ezagutzea, baina haiei dagokiela erabakiak hartzea, eta %13,5ari iruditzen zaio politika politikarien kontua dela eta haiei dagokiela eraginkorrak izatea. Azkenik, %12,4ak ez du interesik politika- eta gizarte-gaietan.

Hau da, %55,9k nahiago luke eredu parte-hartzaileago bat, eta %42,8k uste du politikariek herritarren parte-hartzea eta erabakitzeko ahalmena sustatu behar dutela; beraz, eredu parte-hartzaileagoa nahi duten batzuk ikuspegi kontsultibo baten kokatzen dira, eta besteak herritarren erabaki-ahalmena handitzean pentsatzen ari dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA EGITURATZEKO MODUEI BURUZ, AUKERA HAUETAKO ZEIN DAGOEN HURBILEN ZURE IRITZITIK




5.2 ERABAKIEK ZILEGITASUN GEHIAGO DUTE EREDU IREKI ETA PARTE-HARTZAILEEN BIDEZ EGINAK BADIRA, NAHIZ ETA NIK PARTE HARTU EZ.

Dena dela, nahi edo eskari horri ñabardurak egin behar zaizkiola adierazten duen daturik ere bildu dugu.

Batetik, eredu parte-hartzaileago bat nahi dutenei galdetu diegunean ea prest leudekeen beren denbora eskaintzera gai publiko baten parte hartzeko, multzo nagusiak baieztokarekin erantzun du (%45,9). Beste multzo handi batek ere, herenak pasatxok (%34,5), baietz erantzun du, baina ahalegin handirik ez badie eskatzen. Inolaz ere parte hartuko ez luketenak %19,6 dira.

PREST EGONGO ZINATEKE ZURE DENBORA ESKAINTZERA GAI PUBLIKOETAN PARTE HARTZEKO?



Bestetik, galdetu diegunean ea erakundeek bultzatutako prozesuren batean parte hartu duten, multzo nagusiak (%43,3) erantzun du interesik ere ez duela izan.

Noizbait prozesuren baten parte hartu dutenek, berriz, gipuzkoarren %27,6 osatzen dute, eta beste %14,8k ez du parte hartu, baina ezin izan duelako. Beraz, prestutasuna izan edo agertu dutenak %42,4 dira.

Hau da, berriro ere, zuzenean parte hartu nahi dutenak gutxiago dira eredu parte-hartzaile bat eskatzen dutenak baino. Errepikatu egiten da aurretik esandakoa: batetik, badago herritar kopuru esanguratsu bat parte hartzeko prest dagoena, eta bestetik, oraindik gehiago dira horrelako eredu bat eskatzen dutenak nahiz eta ez dauden prest eurak zuzenean parte hartzeko. Kontraesana ala subjektu individualizatu arduratsuaren logika? Bigarrenaren aldeko hautua egiten dugu guk. "Parte hartu bai, baina parte hartzeko bizi ez", izan daiteke subjektu individualizatu arduratsuaren leloa. Kultura politikoaren ikuspegitik, sakonera handiko ondorio batzuk atera daitezkeela uste dugu.

Izan ere, ondorioztatzen dugunez, subjektu individualizatuak ez ditu bazter uzten kezka sozialak, eta bizimodu eta jendarte hobe baten aldeko desira lausoak adierazten ditu, demokratikoagoa izango dena eta garapen eredu zentzuzkoago batean oinarrituko dena. Baina, aldi berean, bere bizitza eta garapen pertsonala ere asko baloratzen eta zaintzen du. Ildo horretan, ez du ematen bere bizi mailari eta kalitateari uko egiteko prest dagoenik. Ezta ere bere denborari, norbere buruarentzat denbora hartzeari eta eremu pertsonalaren eta pribatuaren arteko orekari.

Horrek guztiak, ondorioz, bere eremu pertsonaleko lehentasunak desorekatuko dituen konpromiso sozial egonkor eta inplikazio iraunkorretatik ihes egitera eramaten du. Gainera, gogoratu behar da subjektu individualizatuak mesfidantzaz begiratzen diela erakunde egituratuei, bere autonomia pertsonala eta aukeratzeko askatasuna mugatzen duten heinean, eta talde identifikazioetatik libre egotea nahiago du.

Baina planteatzen duguna da errealitate horrek ez duela esan nahi subjektu indibidualizatuak uko egiten dionik hobekuntza pertsonal edo sozialen helburuari. Izan ere, subjektu indibidualizatuak baloratu eta estimatu egiten ditu dinamika sozialak sustatzen dituzten pertsonen esfortzu eta konpromisoak. Are gehiago dinamika hauek modu ireki, parte-hartzaile eta ez "instrumentalizatu" edo manipulatuekin bat datozela iruditzen bazaio.


Politika publikoen eremuan, erabakiak hartzeko unean estilo gardenak eta demokratikoak lehenestearen garrantzia azpimarratzera garamatza horrek eta, ondorioz, baieztatu daiteke zilegitasun handiagoa aitortzen zaiela prozedura egokiez baliatzen denaren erabakiei.

Subjektu indibidualizatuaren irudiko, erabaki bat legitimoagoa eta, ondorioz, hobeto onartua da erabaki hori hartzeko orduan prozedurari dagozkion alderdiak zaintzen direnean. Nahiz eta – garrantzitsua da hau azpimarratzea– subjektuak erabakiaren prozeduran parte-hartze zuzenik ez eduki. Subjektu indibidualizatuak bere denbora parte hartzeko foroetan eskaintzeko izugarriko gogoia duela pentsatzea ilusio bat da; baina erabakia hobeki onartuko du iruditzen bazaio prozesu horretan ikuspuntu guztiei lekua utzi zaiela, ikuspuntu horiek kontuan hartu direla eta gaian interesa duten pertsona guztiek beren iritziekin ekarpena egiteko aukera izan dutela.


5.3 DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOIA ALDATU EGITEN DA ADINAREN ARABERA.

Herritarren gehien hobesten eredu demokratikoari dagokionez, alde esanguratsuak topatu ditugu adinaren arabera. Zenbat eta gazteago, orduan eta parte-hartze zuzenagoa eskatzen da. Aldiz, adin handikoen artean, parekatuagoa dago iritzia, baina multzo nagusiari egungo eredu egokia iruditzen zaio.

HOBESTEN DEN DEMOKRAZIA-EREDUA, ADINAREN ARABERA.



Begiratu gazteengan bakarrik jarrita, 2009. urteko inkestak³ ageri duen errealitatek gaur egungora bilakaera bat sumatzen da. Batetik, aldaketa nabarmenena ezaxola adierazi dutenen artean gertatu da. Orduan %21,2k adierazi zuen ereduaren inguruan ez zuela kezkarik. Egun %9,1 izan dira. Eta beste aldaketa eredu parte-hartzaileago baten aldeko multzoaren hazkundera izan da. Gaur egun 8,3 puntu handiagoa da, %63,5koa.




Ikusita 2009tik hona zer-nolako joera ageri den gazteenen artean, eta egun adinaren arabera zer-nolako iritziak azaldu diren (hurrengo adin tartean, 30-44 urte artekoan, proportzio bera da parte-hartze zuzenagoa nahi dutenena), joera horrek jarraitu egingo duelakoan gaude.

³“Baldintza batzuetan, gobernu autoritarioa demokrazia baino hobea da” aukera ez zegoen erantzunen artean.


6 DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOIA ETA EUSKAL ESTATUA

Aurretik ikusi dugu nola Euskadiko demokraziaren funtzionamenduari poztasun maila nahiko handia dagoen Espainiakoarekin alderatuz gero. Eta, bestalde, demokrazia sakonagoko sistema politiko baten aldeko jarrera ere badago. Bien batasunak euskal auziari ere eragiten dio ezinbestean. Gehiengo argiak uste du euskal jendarteak eskubidea duela bere etorkizuna erabakitzeko. Lautik hiru (%74,8) galdeketa egitearen alde agertu da. Horren kontrako iritzia, berriz, hamarretik ia batek eman du. Gehiago dira ez dakitenak edo erantzunik eman nahi ez dutenak (%16,7).


EUSKAL GIZARTEAK BERE ETORKIZUN POLITIKOA ERABAKITZEKO GALDEKETA EGITEAREN ALDE EDO KONTRA ZAUDE?



Herritarren ia hiru laurdena erabakitzeko eskubidearen alde dagoela esan dugu. Horrekin batean galdetu diegu zer egingo luketen Euskal Estatuaz erabakiko litzatekeen balizko erreferendum batean, eta herritarren %48,2k erantzun du Euskal Estatuaren aldeko botoa emango lukeela. %13,3k Euskal Estatuaren aurkakoa. Tartean, gipuzkoarren %10,7k dio abstentziora joko lukeela. Horretaz gain, %27,8k adierazi du ez dakiela zer egingo lukeen egoera horretan edo nahiago izan du galdera honi ez erantzun.

EUSKAL ESTATUAREN ALDEKO EDO KONTRAKO JARRERA.

Estatu berriak sortzeko erreferendumak antolatzen direnean, eztabaida izaten da zein den emaitza onargarria, %50ekoa edo hortik gorakoa. Horren inguruan duten iritzia jakiteko galdera egin zaie inkestan parte hartu dutenei. Ia erdiak (%49,6) uste du %50etik gorako gehiengoa beharko litzatekeela, eta heren batek (%32,5) dio nahikoa litzatekeela %50a gainditzearekin. Beste %17,8k ez daki zer erantzun edo nahiago izan du ez erantzun.

EMAITZA ONARGARRIA IZATEKO NAHIKOA LITZATEKE %50a GAINDITZEA, EDO GEHIAGO BEHARKO LITZATEKE?

7 DEMOKRAZIA DIGITALA


Gipuzkoarrei galdetu diegu Interneten erabiltzen dituzten mezularitza zerbitzuen eta sare sozialen inguruan ere. Posta elektronikoa da, alde handiz, erabiliena. Herritarren hiru laurdenak badu (%76,4). Ondoren, ia erdiak Facebook erabiltzen du (%47,5) eta Twitter %20,0k. On-line dauden beste sare sozial batzuk erabiltzen dituztenak (aipatuena Instagram izan da) %25,6 dira.

Interneteko sare sozialak maiztasun handiz erabiltzen edo begiratzen dituzte gipuzkoarrek. Erdiak baino gehiago (%55,3) inkesta egin aurreko egunean sartu ziren azken aldiz. Dena den, sare sozialik ez daukatenak eta inoiz eduki ez dutenak ere badira, eta ez gutxi, gainera: %33,0.

Bitarteko horien bidez hainbat mezu jaso eta bidali daitezke. Gai sozial edo politikoei lotutako mezuei dagokienez, joera orokorra da gehiago jasotzen direla (%37 inguru) bidali baino (%12 inguru). Hau da, nahiz eta %55,3 egunero sartzen den on-line dagoen sare sozialen baten, soilik %37k jaso du eduki soziala edo politikoa duen mezuren bat. Bidali, berriz, %12k. Beraz, on-line egiten diren elkarrekintza sozial zein politikoei hedadura mugatua dute.


Are gehiago adinari erreparatzen badiogu. 65 urte edo gehiagokoak eremu digitaletik kanpo daude orokorrean. Erabilera handiena %37,7koa da eta posta elektronikoa edukitzeari dagokio. Sare sozialetan oso gutxi ibiltzen dira. Kontrako aldean, gazteenak daude. Ia denek posta elektronikoa dute, Facebook hamarretik zortzik. Eta twitter edo bestelako sare sozialen erabilera ere handia da. 30-44 urte artekoak, posta elektronikoa bereziki, gazteenen antzera dabilta, baina baita Facebooken ere. Gainerakosare sozialetan, ordea, tarte dago. Eta, azkenik, 45-64 urte artekoak daude; adin handikoen proportzioetara iritsi gabe, baina horiek ere gutxi samar mugitzen dira eremu digitaletan.

ERABILTZEN DIREN BITARTEKO DIGITALAK, ADINAREN ARABERA




Bestetik, telebistarekin batera, Internet bidez jasotzen dute lehenik gertaera sozial edo politikoen berri 45 urtetik beherakoek. Hortik gora, ordea, oso gutxik. Eta eduki soziala edo politikoa duten mezuak Internet bidez jasotzeko orduan, adin handikoak, berriro ere, nabarmen gelditzen dira komunikabide horren irismenetik kanpo.

ZENBATEK IZATEN DUTE LEHENIK GERTAERA SOZIAL EDOTA POLITIKOEN BERRI INTERNET BIDEZ? %



ALDERDI EDO POLITIKARI BATI KRITIKA EGINEZ MEZURIK JASO DUTENEN %, ADINAREN ARABERA



Laburtuz, esan dezakegu, gutxi gorabehera, herritarren %37 saretuta daudela on-line dauden sare sozialetan eta %12 aski aktiboak direla. Eta, aldiz, 45 urtetik gorakoak, eta bereziki 65 urtetik gorakoak, analogikoak direla, hau da, oraindik ere ez daudela mundu digitalean.

Bukatzeke, eta demokrazian sakontzeko eskaeraren ideia eta eremu digitala lotuz, Internet bidez botoa emateko prestutasunaren inguruan galdetu dugu. Horri dagokionez, aldekoak gehiago badira ere, zatiketa nabarmena ageri da. Oso prest edo nahiko prest daudenek %48,8 osatzen dute (%22,6 eta %26,2 hurrenez hurren). Batere prest ez edo prestutasun gutxi dutenak %43,2 dira (%30,7 eta %12,5).

Hala ere, berriro ere aldeak ageri dira adinaren arabera. Gazteenen artean %73,5 prest daude Internet bidez botoa emateko. Proporzio hori jaitسي egiten da adinean gora egin ahala: adin handikoen artean, adibidez, %21,2raino. Beraz, batzuekin eta besteekin, hau da, gazteenekin zein nagusienekin aukera ezberdinak baliatu daitezke.

PREST INTERNET BIDEZ BOTOA EMATEKO. ADINAREN ARABERA

